

# MITOTIK FILOSOFIARA: PRESOKRATIKOAK

F <sup>a</sup> -MOTA	GAIA	ORDEZKARIAK	MENDEAK
KOSMOLOGIKOA	ARJE: Oinarria Sorburu Kausa	MONISTAK <i>Jonia</i> Tales Anaximandro Anaximenes Heraklito PLURALISTAK Enpedokles Anaxagoras Atomistak	VI-V
ANTROPOLOGIKOA	GIZAKIA	Sokrates Sofistak	V
SISTEMATIKOA	OSOTASUNA	Platon Aristoteles	IV

## I- AURRETIKOAK

Dakigunez, k.a. bigarren milurtekoan, herri heleniarrek -dorioak, jonioak eta eolioak- Grezia inbaditu zuten. Mende ilun batzuk pasata, X. mendean hain zuzen, Grezia eratzen zuen nekazal sisteman monarkia txikiak inposatzen dira. Orduan, Homeroren Iliada eta Odisea ziren orduko hiritarrak zituzten tresnak bizitza, nolabait, antolatzeko. VIII. eta VI. mendeen artean, aipatu monarkia horiek errepublikak bilakatuz joan ziren, Esparta izan ezik, zeren honek monarkia izaten jarraitzen baizuen. Aristokraziaren kontrako deskontentamenduak herrian oinarrituriko tiraniak ekarri zituen eta, honekin batera, ondasunen banaketa justuagoa eta artisautza, merkatalgo eta koloniakuntzaren garapena.

Filosofia, k.a. VI. mendean, Grezian jaio izan zela zalantzarik gabe onartzen da gaur egun, nahiz eta Indian budismoarekin eta Txinan taoismoarekin antzeko zerbait gertatu zela ezagutu. Beste gaia da ea, jaiotze horrek, eraginik jaso zuen edo autonomoki gauzatu zen erabakitzea. Eta, honetan, adostasunik ez da. Izan ere, batzuen ustez pentsamendu greziarraren sorrera ekialdean -Sumerian, Caldean, Asirian, Egipton...- bilatu behar da, eta beste batzuk, berriz, erabat autonomoa dela diote. "In medio stat virtus" delakoari jarraituz bi jarrera horiek elkargarriak direla esan daiteke. Dena dela, ekialdeko kulturetan sasi filosofikoak diren kontzeptuen existentzia ontzat jotzen da, beraien adibideak hauexek direlarik:

1. Egipton eta Mesopotamian, jainkozko batasun itxuraz, agertzen den Batasun Unibertsalaren ideia:

*"Zenbatezinezko izenen jainkoa, jainkoak diren kideak sortzen dituen"; "bakarra den Bata, aiten aita eta amen ama".*

2. Kosmosen jatorria anabasa urtsutik -Tiamat Babilonian eta Nun Egipton- eta ilunbetik ordenaketarako eta argitarako -Marduk Babilonian eta Ra Egipton- pauso bezala agertzen da:

*"Hasieran Nun zen, masa isurkai premiazkoena, zeinaren sakontasun infinituetan gauza guztien ernamuin nahastuak flotatu egiten ziren. Eguzkia distiratzten hasi zenean Lurra lautua izan zen eta urak bi masa ezberdinetan bereiztuak izan ziren: batak ibaiak eta itsasoa sortu zituen; besteak, airean esekita, zeruaren ganga -goiko urak- eratu zuen eta, haien zehar, betiereko korrante batek eramanda, astroek eta jainkoek nabigatzeari ekin zioten".*

3. Prozesu kosmogoniakoaren -kosmosen sorkuntza- azalpen ezberdinak:

a- Lehenengo Printzipioaren berezko ahalmenagatik.

b- Ekaiaren gaineko Izpirituaren eskuharmenagatik.

c- Kontrako ahalmenen borrokagatik (maitasun/gorroto: Set/Horus Egipton).

4- Itzulera ziklikoa, dena gobernatzen duen lege bezala -Big-bang teoria batekin antza handia dauka ideia honek-.

5- Gorputz hilkorra eta arima hilezkorraren arteko dualismoa -bereizketa-. Ideia hau, besteak beste, Hinduismoan eta kristautasunean agertuko da geroago.

## **II-PENTSAMENDU GREZIARRAREN GARAPENA LAGUNDU ZUTEN ZIRKUNSTANTZIAK.**

Filosofia zergatik Grezian, eta ez beste inon, sortu zen azaltzeko arrazoi hauek aipatzen dira:

1. Merkatal hedakundea. Honek greziarrei aberastasuna, mentalitate irekia eta, bidaietan segurtasuna aurkitzeko, ikerketaren bulkada eta teknologiaren aurrerapenak ekarri zizkien.

2. Ekialde hurbilekiko kontaktua. Ez dugu ahaztu behar ekonomikoki, militarki eta kulturalki hala Pertsia nola Egipto herririk garatuenak zirela. Greziarrek, dudarik gabe, asko ikasi zuten haiengandik -Egiptotik geometria eta Pertsiatik aritmetika eta astronomia, besteak beste-.

3. Demokraziaren ezarpena. Demokraziarekin batera esklabutzaren instituzionalizazioa etorri zen eta honekin aisia. Aisiak iharduera politikoa eta hausnarketa filosofikoa erraztu zituen.

4. Jeinu greziarra. Hau da, batzuen ustez greziarrek beste herriekiko ezberdintzen zituen berezko ahalmena zuten. Azalpen hau, dena dela, biologista delakoan nago garrantzi gehiegi ematen baitzaio heredentzia genetikoiari.

5. Liburu sakratu eta apez-kasta indartsuaren gabezia. Hauek dira, gehien ustez, arrazoirik inportanteenak. Apez-kastek liburu sakratuen beharra zuten, eta dute, erlijioak bete nahi duen paper ideologikoa aurrera eramateko. Liburu horien existentziak apezek egiaren jabetzea dakar eta, honekin, herriaren kontrol ideologiko eta errealia. Greziarrek, beraz, askatasun handia izan zuten, zentsurarik ez baitzegoen.

## **III- MITOTIK LOGOSERA.**

Filosofia baino lehen mitoak ziren errealitatea azaltzeko zeuden bideak. Zertan ezberdintzen dira *mitoa* eta filosofia edo pentsakera razionala *-logos-*?

Mittoa aintzinako garaietan gertaturiko zerbait fabulosoaren kontaketa litzateke, errealitatea azaltzen saiatzeko. Mitoa kolektiboki sortu da, fedean oinarritu da, ahozko tradizio bidez igortzen da eta jainkozko errebelaziotzat jotzen da. Ondorioz esan daiteke mitoa *irudimenezko, ez-kritiko eta nahierarakoa* dela. Horrez gain beste fenomeno berezia gertatzen da mitoetan: antropomorfizazioa; hots, gizakien artean gertatzen diren erlazioak gizakiari ere aplikatzen zaizkiola. Horrela, fenomenoak azaltzeko jainkoen arteko liskarrak, pasioak eta abar erabiltzen dira.

Pentsakera razionalak, bere aldetik, jainkozko nagusikeria eragotzi zuen eta, bide nabarrez, kontzeptu berriak sortzeari ekin zion. Gainera zentzuen itxura eta arrazoiaren arteko oposaketa planteatzen du, zera da, aldakorra dena eta iraunkorra denaren artean: arrazoimenaren bidez kaptatzen diren batasuna, iraupena eta benetakoa denaren aurrean, zentzuek agertzen zaizkigun aniztasuna, aldaketa eta itxura jartzen dira. Beraz,

pentsakera razionalaren ezaugarriak laburbilduz, *arrazoimenezko* (zergatiak ematen baitira), *kritiko eta legeen bidez egina* dela onartzen da. Horretaz gain, arbitraltasunaren orde *beharrezkotasuna* kokatzen da. Hau dena lortzeko, errealitatearen sorburua eta azken azalpena den zerbait bilatu behar zuten, zerbait hori gauza guztiekiko komuna zelarik. Eta aurkitu ere egin zuten: *Natura* -physis- kontzeptuan hain zuzen. Filosofatzeari hasiera eman zion galdera, hau bezalako bat izan zen: zer da *Natura*? Edo berdin dena: zer da *Izatea*?

Mitotik Logoserako pausoa apurka-apurka gertatu zen eta esan daiteke Hesiodoren obran -k.a. VII mendean- somatzen dela. Izan ere, bere ‘Teogonian’ Musek Homeroren “egitxura engainagarriaren munduari egiarekin aurre egin diezaiola” agintzen diote. Egia erakusteko nahia da, beraz, filosofatzearen lehendabiziko elementua. Horretaz aparte, filosofiarekin zerikusirik duten zenbait galdera agertzen dira Hesiodoren obran: zein da gauzen sorburua? zein izan da sortu zenetik kosmosak izan duen bidea? Sorburuaz hitz egiteko asmoa eta osotasunari buruzko kezka dira filosofiarekin erlazionatuta dauden beste elementuak. Dena dela, bere erantzunek mitoen itxura dute, erabilitako analogiak mitoetan agertzen diren bezalakoak baitira.

Eta, aurreko guztiarekin lotuta, mirespena agertzen da, munduaren aurrean izandako sentimendu ikaragarria benetan. Munduan bertan aurkitu behar zuten inon idatzirik etzegoen erantzuna eta honek jakinmina piztu zien greziar jakintsuei. Eta jakinminari grekeraz Filosofia deritzo.

## IV- ARO KOSMOLOGIKOA

### A- SARRERA.

*Natura* -Physis- da Filosofia greziarraren lehenengo arazoa. Honek ez du esan nahi beste gainerako arazoei garrantzia ematen ez zitzaizela, baina lehenetasuna, nolabait, gai horri dagokio: alde batetik, VII. mendea bukatzeaz zegoenean, zientzian (astronomian eta matematikan, batez ere) izandako aurrerapenen berri izan zutelako orduko greziarrek; bestetik, kolonikuntzak, nabigazioak, nekazaritzak eta teknikak izandako garapenak naturaren behaketa eskatzen zuelako.

Hala ere, *natura* azaltzeko greziarrek erabiltzen zituzten kontzeptuak giza munduan -*Polisean*:hirian- oinarritzen ziren. Horregatik agertzen dira elementu fisikoen arteko ezkontzak, gerrak eta garrantzi handiagoa izan zuten justizia (*Dike*), egozketa edo kausa (*Aitia*), zeinak bizi juridikotik hartuak izan ziren. Orain ere, alegoriak -gonbaraketak- erabiltzen diren arren, ez dira pertsonalak edo pertsonifikatuak -mitoetan bezala- baizik eta objektiboak, giza ingurutik aterata.

Behaketak, dudarik gabe, garrantzi handia izan zuen emandako erantzunetan salbuespen batzuk kenduta (*Parmenides*, *Pitagoriakoak* eta *razionalistak* oro har).

Historiari buruzko ideia ere aldatzen da erabat, gizakiengan jartzen baita gertakizunen kausa.

Orain artio esandako guztiaz gain emakumearen baztertze egoera aipatu beharra dago zeren aintzinakoen artean -*Platonen* zenbait testu eta *Epikuro* salbu- emakumea ez baitzen benetako pertsonatzat hartua, honek dakartzan ondorioekin.

## B- MONISTAK

### 1- JONIAKO FILOSOFIAK

K.a. VI. mendean Miletok bere distira handieneko aroa bizi izaten zuen, merkatalgoa eta ezagutza zientifikoak garatuak izan baitziren. Ingurune honetan jaio zen mendebaldeko filosofia, Naturaren Arjea gaitzat izan zuena. Naturaren Arjeaz galdetzea bere substratuaz, sorburuaz eta kausaz galdetzea da, hots, gauza guztiak batzen zituenaz eta aldaketetan irauten zuenaz. Ematen diren erantzunak anitz izango dira eta honek, Popper filosofoaren arabera, dogmatismo eza adierazten du. Izan ere, lehenengo filosofoek ez zuten, geroago gertatu zen moduan, eskolarik eratu, haien jarraitzaileek edota ikasleek hausnartzeko askatasuna izan zutelarik.

Bestaldetik esperientzia da haien ezagutzaren abiapuntua eta bakarrik horrela uler daitezke eman zituzten erantzunak, gaur sinpleegiak diruditenak. Haien meritua, beraz, erantzun zehatzetan baino egin zituzten galderetan eta erantzunak errealitatean bilatzean datza.

Monista guztiek duten komuna da Arjetzat elementu bat besterik ez dutela proposatzen. Lehenengo hiruak Miletokoak izan ziren eta Heraklito Efesokoa.

#### *1.1. Tales (k.a. 624-546).*

- Kultur handikoa eta itsasgizon.
- Berarentzat Arjea Ura zen “hezetasuna gauza guztiak elikatzen dituen delako”.
- Urak etengabe jariotzen duenez gero, osotasunak ere betierekoz jariotzen du.

#### *1.2. Anaximandro (k.a. 610-544).*

- Arjea infinitua (Apeiron) da - sortarazigabea eta suntsiezina-.
- Gauza guztiak betierako mugimenduak eragindako kontrakoen bereizketaren ondorioz sortu eta desagertzen dira.
- Sortzen eta desagertzen diren munduak infinituak dira.
- Espezieen superbizipena beraiek duten organismoarekin lotuta dago.(Ikus daitekeenez Anaximandro eboluzio-teoriaren aitzindari izan zen).

#### *1.3. Anaximenes (k.a 585-528).*

- Arjea - gauza guztien sorburu- Aire infinitua da.
- Bereizketaren bidez Sua eta kondentsazioaren bidez haizea, hodeia, Ura eta Lurra sortzen dira.

#### *1.4. Heraklito (k.a. 504. inguruan bizi izan zen).*

- Aristokrata, bakartia eta harroa zen, ezjakituria, arruntkeria, Miletoko pentsamendua eta mitoak ere kritikatzeko zituelarik.
- Errealitateari buruzko ikuskera kontrajarria:
  - a- Alde batean zentzuen datuak ditugu -esperientzia-: Dena aldatzen da, deusik ez du irauten (bilakabidea):  
“Ibai berbera jaisten gara eta ez; gu geu izaten gara eta ez”
  - b- Beste aldean Arrazoimena dugu:

Honek batasuna eskatzen du ezagutza posible izateko:

*“Arrazoimenak esanda entzun ezkerro, jarrera jakintsua da Bata gauza guztiak dela onartzea”.*

c- Bi aldeen adostasuna:

Fedearen bidez nor bere buruaren ezagutza lortu behar du eta orduan ohartuko da Arrazoia (Logos) komun, dibino eta unibertsala dela.

Logos honek erakusten diguna zera da:

- Jarioaldia eta iraupenaren arteko elkarrekiko identitatea.
- Bata betiereko Sua dela, gauza guztiak Sua direlarik:  
*“Mundu hau... beti izan zen, da eta izango da neurritz piztu eta neurritz itzaltzen den betiereko Sua”.*
- Errealitatea kontrako elementuz osaturik dago, emaitza harmonia delarik. (Arkuan eta liran antzeman daiteke hori).  
*“Gerra gauza guztien ama da...”.*
- Batatik aurkakoak sortzen dira eta aurkakoetatik Bata sortzen da.
- Kontrakoeak elkar baldintzatzen dute:  
*“Bakarrik eritasunak egiten du gozoa osasuna...”*
- Kontrakoeak elkar trukatu eta identifikatzen dira:  
*“Gauza hotzak berotzen dira eta beroak hozten dira...”*  
*“Gugan gauza bera da bizirik dagoena eta hila dagoena...”*

Ikusitako guztiagatik Heraklito Dialektikaren asmatzailatzat hartua izan da, zeren dialektikan ere kontrakotasuna -Tesia eta Antitesiaren artekoa- eta adostasuna -Sintesia- agertzen baitira. Dialektikak garrantzi handia izan du Filosofia garaikidean, Hegel, Marx eta Nietzscheren pentsamenduan batez ere.

## 2- ITALIAKO FILOSOFOAK

### 2.1. Pitagorikoak (Pitagoras, Filolao eta Arquites).

- **Pitagoras (k.a. 580-497)** goratua izan zen bere garaian jakintsutzat jotzen baitzuten. Bera izan zen ‘filosofo’ hitza erabili zuen lehena:  
*“Gizakiaren espezierik puruena edertasun gorenak begiratzeraz helden dena da, eta hori filosofoarena da”.*
- Kutsu erlijiosoa zuen Eskola filosofiko bat eratu zuen.
- Arima hilezkorra eta mugimenduaren kausa zela zioen.
- Arima gorputzez gorputz transmigratzen zela uste zuen.
- Pitagorikoan Arjea zenbakiak ziren zeren gauzen artean erlazioak zeudela eta erlazio horiek zenbakiez adieraz daitezkeela uste baitzuten ( Pitagoras lira baten hari eta soinuen arteko erlazioa ohartu egin zela aipatzen da hori justifikatzeko).
- Zenbakien artean lehena -Bata- besteen abiapuntua zela defendatu zuten horregatik sartzen dira monisten artean:  
*“...eta suposatuz zuten zenbakiak izaki guztien elementuak zirela eta unibertso osoa harmonia eta zenbakia zela”* (Aristotele).
- Zenbakien elementuak ziren: bakoitia (mugatua) eta bikoitia (mugagabea).
- Bata (batasunaren kausa dena) izan ezik zenbaki guztiak aldakorak dira.
- Zenbakiak adierazteko harrizkoak erabili zituztenez, bere iharduerari kalkulu zeritzoten (kalkulu=harria).

- Zenbaki triangeluarrak eta kuadrangularrak bereizten zituzten, haien arteko batzuk forma geometriko horiek zituztelako:

(bat)    ○ ○ (bi)    ○—○ (hiru)    ○ ○ (lau)    eta lehenengo lauen gehiketaren ondorio izateagatik adoratu zena, hamarra, horrela adierazten zuten:

Ikus daitekeenez zenbaki triangeluarra zen eta, batzuen ustez, hau da kristautasunaren izpiritu saindua adierazteko sinboloaren sorburua eta manamenduak hamar izateko arrazoia ere bai.

Pitagorikoen eragina handia izan da, dudarik gabe:

- Arima eta gorputzaren arteko dualismoa Platonengan, kristautasunean eta razionalismoan, besteak beste, agertzen dira.
- Matematikak duen garrantzia ukaezina da, hala Platonengan nola razionalismotik orain arte.
- Metodo hipotetiko-deduktiboaren aitzindariak ere izan ziren pitagorikoak.

## 2.2. Eleako filosofoak.

K.a. VI. eta V. mendeetan Eleako eskola filosofikoa garatu zen Italiako hegoaldean. Bere kideak inbasio barbaroetatik ihes egin zuten migrariak ziren. Ihardun zituzten gaiak mugimenduaren azalpen razionala eta zentzuen eta arrazoiaren arteko problematika ziren.

### 2.2.1. Jenofanes (k.a. 570-480)

- Bere garaiko sinesmen eta ohiturekiko kritikoa izan zen baina, batez ere, erlijioan ematen zen antropomorfizazioaren kontra altxatu zen, jainko bakar bat planteatu zuelarik.

### 2.2.2. Parmenides (k.a. 540-470).

- jaioterrian
- Gehienak bezalaxe familia aristokratiko batean jaio zen eta parte hartu zuen politika munduan.
  - Heraklitoren kontrakotzat hartua izan da, bilakabidea eta kontraesanaren aurrean mundua egonkorra dela defendatzeagatik.
  - Heideggerren ustez bera izan zen izakiaren izatea -hau da, gauzak izan daitezen eragiten duena- pentsatu zuen lehena.
  - Berak idatzi zuen poema bat zeinen metafora asko agertzen diren.
  - Bi bide planteatzen ditu ezagutzeko:
  - Egiarena: “Izatea da eta Ez-izatea ez da”. Beraz ez da posible ezerezaren existentzia eta, honen ondorioz, ezin da onartu “Ez-izatea izan dadila eta Izatea ez dadila izan”. Hemendik ateratzen diren ondorioak Izatearen ezaugarriak izango lirateke:
  - Bakarra (bi balira haien arteko Ez-izatea litzateke eta).
  - Betea (zirrikiturik balu hori bera Ez-izatea litzateke).

- Geldirik (mugitzeko Ez-izatean zehar izango litzateke).
- Aldaezina (aldaketarik onartzeak Ez-izatearen existentziara garamatza -kontraesankorra litzatekeena-
- Betierekoa (ezin da Ez-izateatik sortu ez eta Ez-izatean desagertu ere).
- Iritziarena: Zentzuen bidez lortutako informazioa litzateke. Horiek aldaketa, aniztasuna, bilakabidea... erakusten dizkigute.
- Parmenidek baztertzen du aurreko filosofoek esandakoa. Zentzuek, beraren ustez, engainatzen gaituzte, existitzen ez den errealitatea erakusten digutelako. Hau frogatzeko lengoaiari oinarritu zen. Honetan, grekeraz, 'izan' aditza zentzu absolutu batez erabili zuen, gauzak izaten ahal direla ahaztuz, hots, 'izan' eta 'ez-izan' artean 'izaten ari' dagokeela ukatuz.
- Bestaldetik, pentsamendu eta errealitatearen arteko identitatea defendatu zuen "izatea eta pentsatzea gauza bera direla" azpimarratuz. Honekin razionalismoari eta, batez ere, Hegelen Idealismo Absolutuari atek ireki zizkien.
- Parmenideren bi ezagutza horien banatzeak, batetik, eta ematen dion lehentasunak, bestetik, eragin handia izan geroztik, ez bakarrik Grezian baizik eta mendebaldeko filosofian ere. Hortik dator Platonen bi munduen teoria hala nola Platonek eta Aristotelek bereizten dituzten bi ezagutzak, iritzia eta zientzia edo jakintza alegia. Honek azaltzen du zergatik zientzia geldirik geratu zen epe luze batean.

arrazoimenari  
zuten

### 2.2.3. Zenon (k.a. 490ean jaioa).

- Parmenideren teoriak defendatzeko dialektika erabili zuen aporiak -egia eta faltsuak diren arrazonamenduak- asmatu zituelarik. Haien bidez bai aniztasuna -tamainuaren argudioa- bai mugimendua - eta geziaren argumentuak- ukatu zituen. (Jesús Mosterín, Historia de la Filosofía, 3. tomoa, 68. orr. eta hurrengoak).

Akiles

## 3- PLURALISTAK

Hauen asmoa Heraklito eta Parmenideren kontrako planteamenduak adostea zen, zera da, Heraklitoren aniztasuna eta mugimendua eta Parmenideren izatearen aldaezintasuna bermatzea. Horretarako Arje bat baino gehiago proposatu zuten, zentzuek esandakoa eta arrazoimenak eskatua mantentzearen. Gainera sortzaperen eta usteltasuna ukatzen zituzten, haien ordez arje anizkunaren nahasmena eta bereizketa proposatuz.

### 3.1. Enpedokles (k.a. 492-432).

- Medikua izan zen eta bere hiritarregan eragin handia izan zuen, salbatzaile kontsideratua izan zelarik. Legendak dioenez bere burua hilezkorra zela sinestera heldu zen eta hori mantentzeko edo, bere beste egin zuen Etna sumendira botaz.

buruaz

- Arjea lau elementu ziren, Ura, Sua, Airea eta Lurra, gehi bi indar, Maitasuna eta Gorrotoa, zeinek nahasmena eta bereiztea posible egiten dituzten.
- Elementuen arteko nahasmen eta bereizteak azarean gertatzen dira bakarrik hoberenek irauten dutelarik - hautespen naturalaren aitzindaria kontsideratua izan da ideia honengatik-.
- Hasieran Maitasunak menperatzen du, lau elementuak esfera bikain mantenduz. Gorrotoa inposatzen denean, batasuna apurtzen da izaki ezberdinak agertzen direlarik. Prozesu hau etengabe gertatzen da, itzulera ziklikoa -Nietzscheren Betierako Itzulera izango zena- sortuz.
- Ezagutzari buruz, antzekoa antzekoaren bidez ezagutzen dela baieztu zuen.

batean

### 3.2. *Anaxagoras (k.a. 500-428).*

- Clazomenen (Asia Txikia) jaio arren Atenasera migratu zen, hango lehenengo filosofoa bilakatu eta Perikleren maisu izan zelarik. Bere tribunaletara eraman zuten erlijio gabetasunaren argudioarekin. izan zen baina bere lagunek atera zuten, Joniara bizitzera joan zelarik.
- Enpedoklek bezala, sortzapena eta usteltasuna ukatu zituen, nahasmena eta bereizketa planteatuz. Baina, haren lau elementu ordez mugagabeko Homeomeriak dira Anaxagorak proposatzen duen Arjea.
- Zer dira homeomeriak? Oso txikiak diren haziak -espermak antzeko zerbait- zeinak sustantzia mota adina dauden, hasieran denak nahastuak zeudelarik.
- Gauzak partikulak elkartzerakoan sortzen dira, objektu bakoitzean partikula mota bat nagusituz -hau dela eta gauza ezberdinak sortzen dira nahiz eta objektu guztietan partikula mota guztiak egon-. Horrela Parmenideren Izatearen aldaezintasuna eta Heraklitoren aldaketaren errealitatea bermaturik geratzen dira.
- Partikulak elkartzea posible egiten duen indarra Nousa edo unibertsoko Gogamena da. Nous hau, dena den, infinitua izateaz aparte, materiala da eta mugimendua eragiten du hasierako nahastetik gauzak bereiztuz.  
Nousa, bere hitzetan:  
*“ gauzarik finena da, jakintza eta botere ororen jabe delarik”.*
- Ezagutzari buruz, sentsazioan oinarritu eta kontrako elementuetatik sortzen dela defenditu zuen (beroa, adibidez, gorputzean ditugun hotzen bidez ezagutzen dira).

etsaiak  
Zigortua

partikula

### 3.3. *Atomistak ( Leucipo eta Demokrito -k.a. 460-370-).*

- Aurrekoek bezala, Parmenideren Izate sortezina, suntsiezina, aldaezina mantendu zuten baina, berarekin batera, aniztasuna eta mugimendua ere onartu zituzten.
- Hau dena azaltzeko arje moduko bi elementu mota bereiztu zituzten errealitatean: Betea eta Hutsa (“Ez-izatea Izatea bezain erreal da”). Lehenengoa -Betea- aipatutako Izatearen ezaugarri berberen jabe diren Atomoek osatzen dute, eta bigarrenak, bere aldetik, horiek mugitzeko posibilitatea eskaintzen du.
- Atomo hitzak, grekeraz, zatiezina adierazten duenez garbi geratzen da zein den elementu horien lehenengo ezaugarria. Baina horretaz gain



atomoak infinituak dira eta haien arteko ezberdintasunak itxuran, tamainuan eta kokapenean dautza.

- Mugimendua existitzen da atomoek berezko, betiereko eta azarosoan den mugimendua dutelako. Mugimendu horrek atomoen nahasmenak eragiten dituzte hala nola haien bereizketak ere. Horrela azaltzen da gauza guztien sorrera eta desagertzea.
- Ezagutzaren prozesua. Sentsazioa da hasiera: gorputz guztiek atomo txikiak igortzen dituzte, zeinak, zentzuetatik igaro eta gero arimaren kontra talka egiten duten -ez da ahaztu behar arima ere atomoz osatuta dagoela, hots, materiala dela-.

Atomisten eragina handia izan da materialismo osoan baina, batez ere, mekanizista deiturikoan. Honek planteatzen duena da errealitate osoa -gizakia sartuta- kausa-efektu lege pean dagoela eta kausak ezagutzuz gero etorkizunean gerta daitekeena jakin daitekeela, gertakari guztiak atomoen arteko erlazioetan baitautza. Hau eta askatasunaren ukapena gauza bera da eta, noski, horrela, erantzukizuna eta moralala edota etika desagertzen dira. Dena dela, Demokritoren jarrera ez zen hori izan, zeren etikari buruzko idatzi eder asko utzi baitzuen (“beharrezkoa da edo ona izatea edo ona den bat imitatzea”; “hobe da norberaren akatsei erantzuki egitea besteenak jazartzea baino”...).

## **4- SOFISTAK.**

### ***4.1- Sofisten Grezia.***

Garai disdiratsua hasten da Grezian V. mendean -Perikles mendea deritzona-. Pertsiarrek garaitu ondoren askatasun politiko eta izpirituala gozaten hasten da. Atenas hegemonikoa bihurtzen da, demokrazia ere garatzen delarik. Demokrazia hau, dena den, zuzentzat jotzen bada ere -zeren ordezkartzarrik ez dagoen eta posturik garrantzitsuenak zozketaz hautatzen diren- ez emakumeek, ez esklabuek, ez eta atzerritarrek ere politikan parte harmentzen zuten. Egoera hau aprobetxatuz, aberats pilo bat hirirantz abiatzen da, ardura publikoak betetzen saiatzen direlarik.

Sofistak atzerritarrek ziren eta, beraz, ezin zuten hiriko asanbladetan parte hartu, baina irakasleak ziren eta Dialektika eta Erretorika irakasten zizkieten -diru truke- Atenasko hiritarrei, zeharkako modu honetaz bizi publikoan eragina lortuz.

Sofistekin hitzarmena agertzen da lege munduan, hots, legeak ez dira naturalak izango -gutxi batzuk kenduta- baizik eta akordioen bidez eginda.

### ***4.2. Arazoa.***

Kosmosi buruzko hausnarketa agortutzat jotzen da garai honetan, hamaika erantzun eman eta gero akordiorik lortu ezean. Oraingo kezka gizakia izango da, ez abstraktuki hartuta, beraren arazo praktikoetan oinarrituta baizik. Bilatzen dena, beraz, gizakiaren zorientasuna da, zeina arrakasta politikoan jartzen den. Horregatik asanbladetan ondo hitz egitea eta lengoaiak dituen edukiak menperatzea nahitaezkoak bilakatzen dira eta horretan, hain zuzen, Sofistak maisuak ziren zeren ‘*sofista*’ besteak jakintsuak bilaka daitezela lortzen duena da.

#### **4.3. Protagoras (k.a. 480-410). Abdera.**

- K.a. 450an Atenasera heldu zen eta Periklesen adiskidetasuna lortu zuen.
- Egiari eta baloreei dagokienez erlatibista izan zen: “Gizakia gauza guztien neurria da” zioen eta honek hala egia nola baloreak eta arauak gizakiaren arabekoak edo konbentzionalak direla suposatzen du.
- Ezagutza sentipenezko pertzepzioan datzala uste du Protagorasek eta, horregatik, zientziaren beharrezkotasunari eta orokortasunari uko egiten dizkie.
- Erlijioari dagokionez bere burua agnostikotzat jotzen du (“jainkoen izaeraz eta itxuraz ezer ez dakigu”).

#### **4.4. Gorgias (k.a. 483-375). Leontium.**

- Gorgias erretorikaren maisua izan zen, baina historian tokia lortu bazuen Eleako filosofoen kontrako idatziarengatik izan da. Honetan baieztapen hauek egin zituen:
- “Ezer ez da existitzen”.
- “Zerbait existituko balitz ezin izango genuke bururatu”.
- “Zerbait hori ezagutuko bagenu ezin izango genuke komunikatu”.

Sofistek jarraitzaileak eta kritiko gogorrak izan dituzte historian zehar. Sokrates, ikusiko dugunez, haien etsai amorratu bat izan zen eta, beste askok bezala, klaseak kobratzeagatik kritikatu zituen (“hitzaren merkatariak” deitzen zituen).

## **SOKRATES (k.a. 470-399).**

### **I. BIZITZA**

Atenasen jaio eta hil zen. Aita, Sofronisko, eskultore zen eta ama, Fenareta, emagina. Amaren iharduera-motak, ikusiko dugunez, eragin handia izan zuen Sokratesengan. Sofisten kritiko amorratua izan zen eta horrek, agian, etsai asko sortarazi zizkion. Horien arteko batzuk erlijio gabetasuna eta gazteriaren usteltzea leporatu zizkioten asanbladara eramanez zutelarik. Hiriko asanbladak errudun kontsideratu zuen eta heriotza zigorra ezarri zion. Sokratesek salbatzeko aukera izan zuen, zeren ikasle eta lagun batzuk ihes egiteko plana prestatu zioten baina berak ez zuen nahi izan, beti hiriko legea errespetatu behar zela defendatu zuelako eta ideia honekin kontsekuente izan nahi izan zuelako. Horrela, ba, ikasle eta lagunak bildu zituen eta pozoia -zikuta- hartu eta gero haiekin egon zen hizketan hil arte. Sokratesek ez zuen ezer idatzi eta berari buruz dakigun guztia bere ikaslea zen Platonen testuen bidez ailegatu zaigu.

### **II- FILOSOFIAREN MISIOA**

Sokratesen helburua ez da arrakasta lortzea bertutetsua izatea baizik. Filosofia, berarentzat, hirian ongi bizitzearen artea litzateke eta arte hori ikasi behar den artea da. Filosofoaren papera arte hori irakastea litzateke, baina ez teoriak azalduz, filosofatzen irakatsiz baizik. Horretarako, elkarrizketa ezinbestekotzat jo zuen Sokratesek eta elkarrizketa posible izateko hitzen balioa berreskuratu behar zela zioen. Izan ere, hitz

bakoitzak esanahi bakar bat izan beharko luke sofisten erlatibismoa, ondorioz, ukatzen delarik.

### III- EZAGUTZA

Bakoitzaren baitatik hasi behar da (“Ezagut ezazu zure burua”). Nor beraren burua ezagutzea arima ezagutzea da. Honi introspekzio prozesua deritzogu gaur egun. Eta, zer da arima ezagutzen lortu behar duguna? Gure ezjakintasunaren kontzientzia. Beraz, ez da asko jakitea bilatu behar duguna baizik eta ezer ez dakigulako kontzientzia, hori baita, Sokratesen ustez, lor daitekeen jakinduriarik hoberenaren bidea (*“Norbaitek tenpluko astiari nor zen Atenaseko gizakirik jakintsuena galdetu omen dio eta Sokrates zela erantzun dio astiak. Zer dela eta, galdetu diot nire buruari, ni naiz gizakirik jakintsuena? Eta hauxe da lortutako erantzuna: Inork ez daki ezer, baina batzuk uste dute asko dakitela eta nik, berriz, ezer ez dakidalakoan nago. Ondorioz besteek ez dakite ezer eta nik, gutxienez, zerbait hori dakit”*).

### IV- ELKARRIZKETA

Filosofatzeko metodoa ironian oinarrituriko elkarrizketa proposatzen du Sokratesek. Elkarrizketa honek bi une ditu:

- a) Ezezko edo kritikoa. Errefusapenean, hots, jendeak dituen sinesmenak okerrak direla frogatzean datza. Honen helburua bikoitza da: Izpirituaeren erruak kentzea eta, horrela, ikerketa bultzatzea (bakarrik oker dabilela onartzen duena ikertzeko prest egongo da eta).
- b) Baiezko edo eraikitzailea. Maieutika. Maieutika zen, hain zuzen, emaginen lan-bidearen izena, zera da, erditzeko laguntzearena (bere amaren iharduera zena, lehen aipatu dudana bezala). Hemen, berriz, haurrak jaio daitezkeen lagundu ordez arimatik ideiak atera daitezela da bilatzen dena. Honek ideiek aurre existentzia izan dutela suposatzen du.

### V- EZAGUTZAREN GAIAK

Sokratesi interesatzen zaizkion gaiak ez dira fisikarekin zerikusirik dutenak, etikarekin erlazionatuta daudenak baizik (zuzentasuna, pietatea, jakituria...). Eta balore etiko horiei buruz bilatzen duena orokortasuna da, haien esentzia alegia. Hori lortzeko metodoa indukzioa da: partikularrik -kasu partikularrik- orokorrera, hots, kontzeptuaren definiziora.

### VI- ETIKA

Etikaren xedea zorientasuna da eta hori lortzeko bidea bertuteekin ados bizitzea da. Sokratesen etika, dena den, intelektualistatza jotzen da, zeren, beraren ustez, gaizki aritzen dena bertutea zertan datzan ez dakielako baita. Honekin, noski, erantzukizuna desagertzen da. Laburbilduz, beraz, jakituria ongi bizitzeko eta jokabide zuzena izateko nahitaezko baldintza litzateke.

# **PLATON (k.a. 427-347).**

## **I- BIZITZA**

Familia aristokratiko baten semea, Atenasen edo Eginan jaio zen, Atenas, Peloponesoko gerra eta gero, bere nagusitasun politikoa galtzen ari zen unean, hain zuzen. Hogei urte zituenean Sokrates, bere maisua izan zena, ezagutu zuen. Elkarrekiko maitasuna sortu zuela inork ez du ukatzen. Zein puntutaraino heldu zen maitasun hori, berriz, eztabaidagarriagoa da. Garbi dagoena da, bere maisua goraiatzeko edo, idatzi zituen elkarriketa gehienen protagonista Sokrates izan zela. Bidai asko egin zituen Egipto, Grezia Handia eta Sizilian zehar. Azken honetan Dion eta Dionisos tiranoak ezagutu zituen, haiekin harreman ekaiztsuak izango zituelarik. 387 urtean Atenasera itzuli eta bere eskola -Akademia- eraiki zuen. Honetan, irakasteari jo zion hil arte, Siziliara 366an eta 361ean egindako bidaiak salbu. Bidai hauek bere teoria politikoa praktikan jartzen saiatzeko egin zituen, baina lortutako ondorioak ez ziren batere onak izan -azken bidaian ihes egin behar izan baitzuen-.

## **II-ARAZOAK.**

Platonen gogoeta filosofikoak hiru eremu hartzen ditu: Izatea, Ezagutzea eta Jokatzeta -bai indibidualki, bai kolektiboki-. Bere asmoa Sokratesen kontzeptu orokorrak argitzea eta azaltzea izan zen, horretarako existentzia erreal eta objektuen kanpoko eman zirelarik. Honekin bi mundu -sentipenezkoa eta adimenezkoa- sortu zituen eta bien arteko dualismoa -bereizpena- ezarri zuen. Platonen aurretikoak Heraklito eta Parmenidesengan, batez ere, aurkitzen ditugu.

## **III- IZATEA: IDEIEN MUNDUA ETA GAUZEN MUNDUA.**

Platonentzat Ideiak benetako errealitatea dira eta bere existentzia sentipenezko mundutik at dago. Ideiek dituzten beste ezaugarriak hauek lirateke:

a) Gauzen ereduak dira. Izan ere, mundu fisikoan diren objektu guztiak ideia batean oinarrituta daude.

b) Aldaezinezkoak dira -horrela mantentzen du Parmenidesen Izatearen ezaugarriarik inportanteena-.

c) Ideiak ezin dira zentzuen bidez ezagutu, adimenaren bidez baizik -beraz adime- nezkoak dira-.

d) Ideien artean elkarrekiko batasuna dago eta arima, bizi eta mugimendu dituzte.

e) Batasuna izan arren, ideia guztien arteko komunikaziorik ez dago. Horrela izanda, badago elkartzeko balio duten ideiak -Izatearena, Batarena eta Osotasunarena- eta elkartezinak direnak ere -aurkakoen ideiak-. Garbi dago puntu honetan lengoaiak duen eragina. Adibidez, 'zaldi guztiak ugaztunak dira' esaterakoan 'izan' aditzaren papera 'zaldi' eta 'ugaztuna' hitzak elkartzean datza. Guk lengoaiaren arloan kokatzen duguna Platonek errealia bihurtzen zuen.


f) Ideien artean hierarkia dago. Gauzen ideiak oinarrian leudeke, gero ideia matematikoak lirateke, gorago moralarekin loturiko ideiak eta azkenik, ideia gorena, Ongiaren ideia legoke. Ideien zientzia edo ezagutza Dialektika da.

Ideien aurrean Gauzen Mundua dago, objektu fisikoen mundua alegia. Zer dira Gauzak? Ideien kopia inperfektuak. Duten errealitatea Ideien errealitatean parte hartzeagatik datorkie. Nabaria da Platonek materiala denari buruz destainaz hitz egiten duela eta hau bera, ikusiko dugunez, Fisika zientziari aplikatu dakiokela. Horrela ulertzen da zergatik, batzuen ustez, Platonen filosofia eta jarrera zientziaren kontraketat jo izan diren.

IDEIEN MUNDUA	GAUZEN MUNDUA
<p><i>Ideiak dira:</i></p> <p>Bakarrak</p> <p>Berez existitzen dira</p> <p>Adimenezkoak</p> <p>Betierekoak</p> <p>Aldaezinak</p> <p>Ereduak</p>	<p><i>Gauzak dira:</i></p> <p>Anitzak</p> <p>Partaidetasunagatik existitzen dira</p> <p>Sentipenezkoak</p> <p>Galkorrek</p> <p>Aldakorrek</p> <p>Kopiak</p>

#### IV- EZAGUTZA.

Bi errealitate mota badago, bi ezagutza ere izango dira: Gauzena eta Ideiena. Lehenengoari buruz Platonek benetako ezagutza ez dela dio zeren mugitzen denak, zera da, zentzuen bidez hautematen denak, benetako ezagutza baztertzen baitu. Benetako ezagutzak beti berbera behar du izan eta gauzak, ikusi dugunez, aldakorrek dira. Horrela ba, gauzei buruzko ezagutza iritzia da, besterik ez. Ideiei buruzko ezagutza dagokionez, berriz, benetakoa da, Ideiak aldaezinak direlako. Dena den, azken hauen ezagutzara ailegatzeko sentipenezko ezagutzatik abiatu behar dugu. Nola da posible pauso hau? Oroitzapenaren bidez. Ezagutzea, beraz, oroitzea da eta honek dakarrena da Ideiak, nolabait, alde aurretik gure arimak ezagutzen dituela -arima, geroago ikusiko dugunez, ideiekin aurrexistitu baita-. Ondorio bezala ikastea ahaztutakoa oroitzea dela esan daiteke eta, horretarako, metodo induktiboa aplikatzen du Platonek: partikularretik (gauzen ezagutza) orokorrera (Ideien definizioa) joatea alegia. Orain arte ikusitakoa ulertarazteko Platonek mito baten bidez azaltzen digu: Haitzuloaren mitoa (Errepublikan VII, 514a-520a). Honetan, ezagutza prozesuak nolakoa beharko lukeen izan adierazten digu eta horretarako errealitate-mota eta ezagutza-mota aipatzen ditu. Eskematikoki hau izango litzateke:



#### **IV- KOSMOLOGIA. JAINKOA.**

1. Kosmosen sorrera azaltzeko hiru faktore erabiltzen ditu:
  - a) Lehenengo Ekaia edo Materia. Hau gaitza, aldakortasun eta aniztasunaren kausa litzateke. Bere ezaugarriak hauexek dira: Ez-izatea, ezezkortasuna eta formarik gabekoa, hots, ideien kontrakoa hain zuzen.
  - b) Eredua: Ideiak lirateke.
  - c) Egilea: Demiurgoa. Honek jainkoaren papera hartzen du baina ez jainko sortzaile batena, eraikitzailearena baizik. Demiurgok Ideiak eredutzat hartuz ekaiari forma bikainak ematen saiatzen da, baina ezin du lortu materiaren erresistentzia gaindiezina delako. Hau dela eta gauzen mundua imperfektua da.
2. Jainkoa. Oso garbi ez badago ere Ideien kanpo dagoen aldaezinezko zerbait litzateke. Bere existentzia frogatzeko lehenengo motorraren argudioa erabiltzen du (mugitzeko gauza orok motorra behar du eta honek, bidenabarrez, beste motor bat. Infinituraino ailegatzea ezinezkoa denez mugiezina den lehenengo motorrera ailegatuko ginateke: jainkoa).

#### **V- ANTROPOLOGIA.**

Platonek orfismoan hasia, pitagorismoan mantendu eta Sokratesekin zabaldu zen gorputza eta arimaren arteko haustura defendatzen du. Honi ‘dualismo’ deritzon, gorputza arimaren espetxea izango delarik. Arima eta gorputzaren arteko batasuna akzidentaltzat jotzen du Platonek. Honek suposatzen du heriotzaren unean bereiziko direla, arimak existitzen jarraituk duelarik. Gizakia, beraz, bere arima litzateke, hau definitzen eta gizakia egiten duena baita. Arima -Ideien ezaugarriak dituena- biziaren printzipioa da, gorputza biziduna bilakatuz. Arimak hiru ahalmen -batzuk hiru arima ezberdin direla diote- ditu: Razionala -buruan kokatuta- pentsatzeaz arduratzen da, Suminezkoa -bularrean- grinaren arloa kontrolatzen duena da eta Irritsezkoa -sabelean- instintuen mundukoa. Arima, lehen aipatu dugun bezala, aurrexistitu egin da (ikus Galdi Hegadunaren Mitoa: Fedro, XXV-VI, 246) eta, beraz, hilezkorra da eta azken hau frogatzeko lau argudio asmatu zituen, laburbilduz hauexek liratekeelarik:

- Arimak Biziaren ideian parteharmena du.
- Arimak Ideian antza dauka eta hauek betierakoak dira.
- Ideien oroitzapenak, arimaren aurrexistentzia frogatzen du eta, horregatik, hilezintasuna ere.
- Argudio etikoa: Mundu honetako jokabideek sariak edo zigorrak merezi dituzte eta horiek hil eta gero eman behar dira.

#### **VI- ETIKA.**

Etikaren eginbeharra gizakien portaera zuzentzea da, horretarako baloreak eskaini eta balore horiek lortzeko bideak -arauak- ematen dituelarik. Platonen kasuan, Ongi gorena -zeren baloreen artean hierarkia dagoen- plazerra eta jakituriaren arteko nahasketa egokia litzateke. Zoriontasuna, beraz, horretan datza. Bestaldetik, borondatearen askatasuna defendatzen du eta, berarekin batera, erantzukizuna. Dena den

defendatzen duen askatasuna nahiko mugatua dago zeren, beraren ustez, denok jaiotzerakoan izaera bat dugu, guk aukeratzen ez duguna. Orduan, aukera dezakegun bakarra tokatu zaigun izaera modu batez edo bestez garatzea da. Aipatu Ongi gorenaren lortzeko bidea birtuteak dira, arima duen ahalmen bakoitzari bat dagokiolarik:

- Arima razionalari Jakituria edo Zuhurtasuna dagokio.
- Suminezko arimari Sendotasuna edo Adorea.
- Irritsezko arimari Neurritasuna.

Hiru birtute hauez gain laugarren bat aipatzen du: Justizia, bertuterik inportanteena litzatekeena. Justizia orekaren sinonimoa da Platonentzat. Izan ere, arima edo ahalmen bakoitzak dogokion bertutearekin ados egotean suertatzen da oreka edo Justizia indibiduala eta, ikusiko dugunez, Estatu mailan ere antzeko zerbait gertatzen da.

Platonen gizakiaren eta etikaren teoriak elitistatzat jo izan dituzte batzuk. Egiatzki, jaiotzeko izaera aipatzerakoan -eta planteamendu honek dituen ondorio moralak aztertzerakoan- ikus daiteke askatasuna nahiko mugatua geratzen dela, askatasunik dagoen esan badaiteke. Eta, aipatu dugunez, etika eta politika bereizi ezin direnez, Platonen ustez, bere teoria klasista bilakatzen da. Egia da heziketa aipatzen duela, baina heziketaren papera eskasa da, zeren bere eginbeharra nork bere baitan aldezturik jasotako izaera azalaraztea bakarrik baita.

## **VII- POLITIKA.**

Batzuen ustez Platonek idatzitako gehiena Estatu ongi antolatzeko zuzenduta zegoen. Politikari buruzko libururik garrantzitsuenean -Errepublika- Estatuaren sorburu, helburu eta egituraz gain Izateari, Gizakiari, Ezagutzari eta Heziketari buruzko teoriak agertzen dira. Honek esan nahi du Platonen pentsamenduak -garai batekoa bederen- osotasun bat eratzen duela eta bare baitan dauden gaiak azaltzeko bakarrik bereizten direla. Dena den, zerbait lotuta badago Platonen pentsamenduan, Etika eta Politika dira. Zergatik? Platonen arabera gizaki izatea eta hiritar izatea gauza bera direlako: Gizakiak hirian garatu behar du bere burua eta Estatuak hori egiteko laguntza eman behar dio.

Estatuak gizakiok ditugun beharrak asetzeko elkartzen garen lur-eremu mugatua litzateke. Baina behar horiek ez dira behar fisiologikoak bakarrik baizik eta arimaren beharrak ere. Estatuak, beraz, bi helburu lituzke: bat, hiritarren gorakada moralaren erraztea eta, bi, beharrak asetzea. Platonek Estatu ideiala, 'osasuntsu' deitu zuena, deskribatzen digu. Honetan behar minimoak asetzeko elkartzen da jendea, nork bere ahalmenaren arabera iharduerari ekiten dio eta mantentzeko seme-alabak bakarrik dituzte. Baina estatu hori irrealizat jotzen du Platonek, batez ere jendeak bizimodu arrunt horrekin ados ez dagoelako. Orduan, luxuzko gauzak agertzen dira, ekoizle gehiagoaren beharra eta, noski, horiek elikatzeko lur-eremu handiagoaren beharra ere bai. Azken honekin gerrak etorriko dira, zeren beste herriei dituzten lurak kendu beharko zaizkien, eta armada osatzearen premia ere. Hau egiteko proiektua eskaintzen digu eta, aipatu dugun bezala, Etikarekin erabat lotuta gainera. Izan ere, hiru arima mota edo izaera badago -urrezkoa, zilarrezkoa eta brontzezkoa-, hiru klase sozialak ere proposatzen ditu bakoitzak dogokion bertutearekin. Beraz, esan daiteke bere estatu hierarkikoa dela. Hierarkia honen gailurrean gobernariak edo filosofoak daude, haien bertutea zuhurtasuna edo jakituria izanik; beheago, gerlariak leudeke, bertutetzat adorea dutenak; eta, azkenik, langileak daude, neurritasunez aritu behar dutenak. Estatuaren antolamenduari helburua Estatu justua eratzea da eta justizia hori Platonentzat orekan datza. Nola lortu oreka hori? Zertan datza Justizia? Nor bere bertutearekin ados

bizitzean datza, esango du Platonek. Beraz, ez klase nahasketarik ezta besteenaz jabetzea ere ez da gertatu behar. Aipaturako klase horiek zeintzuk eratu behar duten jakiteko, edo, gauza bera dena, nola jakin daitekeen gizaki bakoitzari zer klase dagokion hautapena egingo da, zeren bakoitzaren ahalmena zein den jakingo baita. Heziketa honek bi maila izango ditu: batean, soinketa eta musika irakatsiko dira eta, bestean, matematika eta filosofia. Lehenengo maila gaintitzen dutenak gerlariak, bigarrena gaintitzen dutenak, berriz, gobernariak, eta ez bata ez bestea gaintitzen ez duena langilea -artisau, merkatari, soldatapeko...- izango dira. Heziketa hiritar guztientzat -beraz, emakumeentzat ere- berbera da, estatuaren ardura delarik.

Ospetsua da Platonek aipaturiko komunismoa. Izan ere, beraren ustez, gizakiok izan ditzakegun aberasteko tentazioak gaintitzeko, hoberena da tentazio horiek ekiditea eta, horretarako, estatua zuzendu behar dutenek estatuari haien ondasun guztiak eman behar dizkiote, seme-alabak barne. Modu honetan jakin daiteke gobernari izan nahi duena aberasteko asmoarekin ez dela.

Gobernu-mota ezberdin bereizten ditu Platonek: hoberena, Aristokrazia litzateke -filosofoen gobernu-, gero Timokrazia etorriko litzateke -gerlarien gobernu-, geroago Oligarkia -aberats gutxi batzuen gobernu-, hau eta gero, berriz, Demokrazia litzateke eta, bukatzeko, Tirania -demagogo batzuen gobernu-. Sailkapen honetan balorapen eskala bat dago, zera da, hoberenetik okerrenerako bidea. Ikus daitekeenez, Demokraziari buruz duen balorapena nahiko eskasa da eta horren arrazoia Sokratesi gertatutakoan bilatu behar da. Bere ustez herriak ez du gobernatzeko ahalmenik eta, horregatik, boterea lortzen duenean injustiziak suertatzen dira. Dena den, azken idatzietan aristokrazia eta demokraziaren arteko nahasmen egokia proposatu omen zuen.

## **ARISTOTELES (k.a. 384-322).**

### **I- BERE BIZITZA**

Estagiran -Trazia- jaio zen bere aita Mazedoniako erregearen medikua zelarik. Hamazortzi zuelarik Atenasera joan zen Platonen ikasle bihurtuz. Akademian hogeitun urte eman zituen, Platon maisua hil arte alegia. Gero bidaiatzeari ekin zion. K.a. 343. urtean Alejandronen tutorea izendatua izan zen, honek hamahiru urte zituenean. Berarekin, adinez nagusia izan arte - hamar urterekin gertatu zen hau- egon zen. Geroago, 345. urtean, Atenasera itzuli eta bere eskola -Lizeo- eratu zuen. Alejandro hil zenean atenetarrak iraultzatu ziren eta haren lagunak eraso zituzten, Aristoteles barne zegoelarik. Sokratesi bezala, erlijio gabetasuna leporatu zioten baina, hark ez bezala, ihes egin zuen hurrengo urtean hil zelarik.

### **II- BERE PENTSAMENDUAREN NORABIDEA.**

Parmenides eta Heraklitoren arteko antitesia eta Platonen bi munduen dualismoa gaintitzen saiatu zen. Horretarako, errealitate bakarraren existentzia defendatu zuen, subjektu indibidualarena, hain zuzen. Unibertsalik, hots, Ideiarik, eztago beste inongo mundu batean; dagoen bakarra indibiduoak dira. Eta benetako eta faltsua diren munduak



ez badira, ezagutzaren objektua ere bakarra izango da nahiz eta, errealtate hori anitza denez, zientzia arlo partikularretan banatu beharra dagoen.

### III. EZAGUTZA.

#### 1. Mailak.

Ezagutza arloan maila edo gradu ezberdinak bereizten ditu: entsazioa-oroimena-esperientzia-arte-zientzia-adimena. Dena den bi arlo nagusi azpimarratzen ditu:

a) Sentipenezko ezagutza edo Esperientzia. Honen bidez gauzen ‘zera’ ezagutzen dugu. Aristotelesentzat hau ez da inolako jakinduria edo zientzia zeren beraren objektuak kontingenteak eta partikularrak baitira.

b) Jakinduria: honek gauzen ‘zergatia’ aditzera ematen digu, hots, kausak eta printzipioak. Honen barruan bi jakinduria-mota bereiz daitezke  
 - Zientzia edo jakintza frogagarriak. Zientzia betikoari buruzko ezagutza  
 kantitateari da, aldatzen ez denari buruzkoa alegia. Teoretikoak (Fisika - buruz-, Matematika -kualitateei buruz- eta Lehenengo Filosofia - buruz-), Praktikoak (Etika, Ekonomia eta Politika) eta Poetikoak (Arte Izateari Ederrak).

- Adimena: Zientzien Lehenengo printzipioen (axiomak eta demostrazio printzipioak) ezagutza. Printzipio hauek, lehenbizikoak izateagatik, ezin dira beste printzipioetan oinarritu edo justifikatu. Horregatik, beraiei buruz ez dago azalpenik, ez eta kausarik ere, haiek beste edozein printzipioren zergatia baitira. Printzipio hauek -Identitate, ez-kontraesan eta hirugarrena baztertze- beraz, intuizio bidez bakarrik ezagunak dira.


#### 2. Logika.

Aurretiko zientziatzat jotzen du Aristotelesekin, jakintza zientifiko guztien egituraketa zuzenaren tresna delako. Bere helburu pentsamendu zuzenaren formak eta hauen da.

- Forma logikoak:

a) Kategoriak: Isolaturik hartutako terminoak (adib.:izenak). Categoria hauek, dena dela, bi esanahi dituzte bere filosofian: Logikoa (pentsaera) eta Ontologikoa (izaera).


b) Proposizioa (Judizio): Subjektu bati, aditzaren bidez, predikatu bat atribuitzea, egozte, da. Dauden mota guztiak azaltzeko paralelogramo famatua erabiltzen da:



“Gizon batzuk zuriak dira”

“Gizon batzuk ez dira zuriak”

- c) Silogismoa: Diskurtso bat da zeinean gauza batzuk -premisak- finkatu ondoren beste batzuk -ondorioak- nahitaez jarraitzen duten. Premisen ezagutza indukzioaren bidez lortzen da. Silogismoa zientzia egiteko tresna da.
- d) Definizioa: “gauza bat zer den azaltzen duena”.
- e) Demostrazioa: “gauza bat beste gauza bati buruz zergatik egia den edo ez argitzen duena.



(Temas de Filosofía: Aristoteles. Donostiarra Argitaletxetik itzulia).

#### IV- METAFISIKA. IZATEA.

##### 1. ‘Izate’ hitzaren esanahiak.

Izate hitzak, batetik, ‘substantzia’ aditzera ematen du eta, beste aldetik, dauden ‘atributu’ edo ezaugarri ezberdinak (kantitate, kalitate, erlazio, lekua, denbora, egoera, janzkia, aktibitate, pasibitate). Lehenengo Izatea, Aristotelesen arabera, substantzia da, hau da, bere baitan existitzen dena. Atributuak, berriz, izateak dira substantziari dagozkiolako; hots, atributuak ez dira haien baitan existitzen, ez dira benetako izateak. Ikus daitekeenez, atributu guzti horiek edozein gauza -substantzia- deskribatzeko behar ditugun elementuak lirateke.

## **2. Substantzia-mota eta bere osagaiak.**

Lehenengo substantzia indibidua da eta bigarrena espezie eta generoa.

Substantziaren osagaiak hauexek liraterke:

- a) Materia. Substantziarekiko ahalmen, posibilitate eta ez-aktu litzateke. Ez-izate erlatiboa da zeren, berez, ez baita baina izaten ahal da. Bi materia-mota dago: Lehena -gauza guztien printzipio-, eta Bigarrena -gauza bakoitzaren osagai-.
- b) Forma. Aktu, existentzia erreala, materiari errealitatea ematen diona. Substantzia ez da ez materia ez da forma ere, bien batasuna baizik.

## **3. Platonek esandakoarekiko kritika.**

- Ideiak zentzugabeko gauzen berretzapen -erreduplikazio- bat dira.
- Platonen teoriak zentzuak onartzen ez dituen ideiak -existitzen ez denarenak, adibidez- errealtzat jotzera garamatza. Ideiek ez dute sentipenezko mundua ezagutzeko azalpenik ematen.
- Esentziak eta existitzen diren gauzak bereiztea ezinezkoa da.

## **4. Substantziaren kausak.**

Substantziak, existitzeko, lau kausa behar ditu: Materiala -zerez egina dagoen-, formala -bere itxura edo izaera-, egilea -zerk edo nork eman dion izatea- eta xedezkoa -zertarako egina izan den edo zein den bere helburua-. Bizidunen kasuan, lau kausa hauek bi bilakatzen dira: material -gorputza eta formala -arima-.

# **V- FISIKA**

## **1. Espazioa.**

- Izakiek betetzen duten lekutzat jotzen du Aristotelesek.
- Ez da ez gorputza ezta materia eta formaren batasuna ere.
- Mugiezina da.

## **2. Aldaketa.**

- Naturalak diren gauza guztiek aldaketak dituzte.
- Aldaketa zer den azaltzeko bi modu erabili zituen:
  - a) Ahalmenean dagoen izakiren aktua. Adibidez: zuhaitz-hazia zuhaitza izateko ahalmena da; aktura pasatzean, hots, zuhaitza izateko pausoa ematean, aldaketa bat jasan behar izan du.
  - b) Substratuak ez zuen forma batez jabetzea. Adibidez: marmol-bloke batek ez duen eskultura baten forma hartzean, aldaketa gertatzen da. Prozesu honetan substratua da irauten duena (marmola) eta forma aldatzen dena (bloke izatetik eskultura izatera pasatzea).
- Aldaketa-mota.
  - a) Substantziala. Substantzia bat izatetik beste bat izatera pasatzea. Hemen, adibidez, sorkuntza eta ustelkeria edo heriotza liraterke.
  - b) Akzidentala. Orain aldatzen direnak substantziaren atributuak dira. Hauek izan daitezke kualitatiboa (hotza izatetik beroa izatera), kuantitatiboa (txikia izatetik handia izatera) eta lokala (lekuz aldatzea).

### 3. Unibertsoaren ikuskera.

Aristotelesek unibertsoari buruzko ikuskera geozentrikoa du. Lurra erdigunean kokatuta litzateke, lau elementuak -lurra, ura, airea eta sua- dituelarik. Goian bosgarren elementua -eterra- kokatzen du. Honetan ilargia eta orduan ezagunak ziren planetak daude eta gorago oraindik kristalezko esfera bat, izar mugiezinezko esfera, hain zuzen. Lurra ez beste gainerako zero gorputz guztietan mugimendu bikaina gertatzen da, hots zirkularra. Lurrean, berriz, bi mugimendu-mota bereizten ditu: naturala -gorputz orok, duen konposaketatik, dagokion lekura joateko joera- eta bortxatuta -jaurtikigailuena-. Azken hau azaltzeko -hau da, nola den posible jaurtikigailu bat ez erortzea bat batean- airearen bulkadaren teoria asmatu zuen.

## VI- ANTROPOLOGIA.

Gizakia izaki naturala da, substantzia bat alegia. Substantzia guztiak bezala bereiztezinezko materia eta formaz eraturik dago, baina, biziduna izateagatik, bere materia gorputza da eta forma arima. Materia ahalmena den bitartean, arima aktua da, izaki gizatiar biziduna bilakatzen duena. Arima elikadura, zentzazio, pentsamendu eta mugimenduaren printzipio edo kausa litzateke. Gorputza, berriz, arimaren tresna bezala agertarazten du Aristotelesek arima den motorren mugikari izanik. Arimak hiru ahalmen ditu:

- a) Hazkorra -begetatiboa-. Beragatik bizidun guztiek bizia dute eta bere funtzioak ugaltzea eta elikatzea dira.
- b) Sentipenezkoa: zentzazioak izateko ahalmena. Ahalmen hau duten bizidunek apetitu, irudimen, oroimen eta mugitzeko ahalmena dituzte.
- c) Adimenezkoa. Pentsatzeko ahalmena da. Beraren bidez gizakiok -hau bakarrik guk baitugu- kontzeptuak eta haien arteko loturak sortzen ditugu eta, gainera, gure jokabidea zuzentzen dugu.

## VII- ETIKA.

Aristotelesen etika helburuzkoa da. Gure egintzak xede batera bideratuak daude, xede hori ongia delarik. Baina egintza ezberdinak direnez, ongiak ere ezberdinak izango dira. Dena den, ongien artean, denek ez dute garrantzi berbera eta garrantzi-eskala honetan zoriontasuna da gailurra, hots, ongirik gorena. Zertan datza zoriontasuna? Gizakien kasuan dagokigun izaera ahalik eta hoberen garatzean datza, izaera hori dugun arima-mota delarik. Eta garatze bikain hori lortzeko bidea bertutea da. Bertutea gehikeria eta gabekeriaren arteko erdiko terminoa litzateke. Bi bertute-mota bereizten ditu -gure adimenezko arimak dituen iharduera adina-: Adimenezkoak -jakinduria, zuhurtasuna...- eta Moralak -sendotasuna, neurritasuna, egizaletasuna...-. Moralak direnen artean Justizia kokatzen du, zeren eta gizakia izaki soziala da eta justiziaren helburua gizartearen zoriontasuna da.

## **VIII- POLITIKA.**

### **1. Estatua.**

Gizakiak, Politika zientzia praktikoa da, helburua gizartearen ongia izanik. izaki soziala denez, gizartean bete dezake bere helburua eta, horregatik Politikak Etikarekiko lehentasuna dauka. Estatua sortzen da familiak - gizarte-mota txikiena- baserritan elkartzen direnean eta hauek ere gauza bera egiten dutenean. Estatuaren helburua, aipatu dugun lez, hiritarrei bizi on eta zoriontsu erraztea da, hau da, Estatuak bitartekoak jarri behar ditu hiritarrok razionalki gara daitezen.

### **2. Gobernu-mota.**

Bi gobernu-mota bereizten ditu:

- a) Zuzena edo Justua. Honek ongi komuna bilatzen du. Hemen Monarkia, Aristokrazia eta Demokrazia kokatzen ditu.
- b) Injustua. Interes partikularra bakarrik lortu nahi duena. Bestearen ukapena litzateke, Tirania, Oligarkia eta Demagogia barruan daudelarik.

## **BIBLIOGRAFIA**

### Greziako filosofiari buruz:

- “Historia de la Filosofía”. 1. Liburukia. F. Copleston. Ariel.
- “Obras completas”. 1. Liburukia. B. Russell. Aguilar.
- “Ciencia y Filosofía en la Antigüedad”. B. Farrington. Ariel.
- “El pensamiento antiguo”. R. Mondolfo. Losada.
- “Historia de la Filosofía”. 3. eta 4. Liburukiak. Alianza Editorial.

### Presokratikoei buruz:

- “La naturaleza y los griegos”. E. Schrödinger. Tusquets.
- “Refranes presocráticos”. J.D. García Bacca. Mediterráneo.

### Platoni buruz:

- “El pensamiento de Platón”. F. Chatêlet. Labor.

## AURKIBIDEA

### Gaia

### Orrialdea

#### MITOTIK FILOSOFIARA:

I- Aurretikoak.....	1
II- Pentsamendu greziarraren garapena.	
III- Mitotik Logosera. ....	2
IV- Aro Kosmologikoa:	
A- Sarrera. ....	3
B- Monistak.	
1- Joniako filosofoak.	
1.1. Tales.	
1.2. Anaximandro.	
1.3. Anaximenes.	
1.4. Heraklito.....	4
2- Italiako filosofoak.	
2.1. Pitagorikoak.....	5
2.2. Eleako filosofoak.	
2.2.1. Jenofanes.	
2.2.2. Parmenides. ....	6
2.2.3. Zenon.	
3- Pluralistak.	
3.1. Enpedokles. ....	7
3.2. Anaxagoras.	
3.3. Atomistak. ....	8
4- Sofistak.	
4.1. Sofisten Grezia.	
4.2. Arazoa. ....	9
4.3. Protagoras.	
4.4. Gorgias.	

#### SOKRATES.

I- Bizitza.	
II- Filosofiaren misioa.....	
10	
III- Ezagutza.	
VI- Elkarrizketa.	
V- Ezagutzaren gaiak.	
VI- Etika.....	11

#### PLATON

I- Bizitza.	
II- Arazoak.	
III- Izatea. Ideien Mundua eta Gauzen Mundua. ....	12
VI- Ezagutza. ....	13
V- Kosmologia.	
VI- Antropologia.	
VII- Etika.....	14
VIII- Politika. ....	15

## ARISTOTELES

I- Bizitza.	
II- Bere pentsamenduaren norabidea.....	16
III- Ezagutza.	
1. Mailak.	
2. Logika.....	17
3. Prozesua.	
VI- Metafisika. Izatea.	
1. 'Izate' hitzaren esanahia.	
2. Sustantzia-mota eta bere osagaiak.....	18
3. Platonek esandakoarekiko kritika.	
4. Substantziaren kausak.	
VII- Fisika. ....	19
VIII- Antropologia.	
IX- Etika. ....	20
X- Politika.....	21
BIBLIOGRAFIA.....	22



## BIBLIOGRAFIA

### Greziako filosofiari buruz:

- “Historia de la Filosofía”. 1. Liburukia. F. Copleston. Ariel.
- “Obras completas”. 1. Liburukia. B. Russell. Aguilar.
- “Ciencia y Filosofía en la Antigüedad”. B. Farrington. Ariel.
- “El pensamiento antiguo”. R. Mondolfo. Losada.
- “Historia de la Filosofía”. 3. eta 4. Liburukiak. Alianza Editorial.

### Presokratikoei buruz:

- “La naturaleza y los griegos”. E. Schrödinger. Tusquets.
- “Refranes presocráticos”. J.D. García Bacca. Mediterráneo.

### Platoni buruz:

- “El pensamiento de Platón”. F. Chatêlet. Labor.